

ANAITASUNA

**Aldizkariaren historiaren eta
edukien azterketari sarrera**

I. ALDIZKARIAREN HISTORIAZ HAINBAT ZERTZELADA

AITZIN OHARRAK

Lerro hauek *Anaitasunaren* historia egiteko laguntza eskaini nahi dute. *Anaitasunaren* historia egiteko testua eta testuingurua gehiago aztertu beharko lirateke: hau da, aldizkariaren edukiak aztertu beharko lirateke, noski, baina baita *Anaitasunaren* garaiko gizartea, kultura, politika ere. *Anaitasuna*, izan ere, frankismopekoa da ia osoki (Autonomiaren aldia iritsi berritan hil zen), zentsura garaikoa hortaz, eta horrek berak esplikatu dezake hainbat gai zergatik tratatzen ziren modu batera eta zergatik ez ziren erabiltzen beste hainbat, edota zergatik jaio zen jaio zen moduan eta lekuan.

Baina berriz diot, hori dena ez da oraingo gaia.

Hemen eta orain *Anaitasunaren* intrahistoriatik helduko diogu gaiari, geroko azterketen aurrean gisa.

30 urteko historia gorabeheratsua

Lineala ez beste dena izan da *Anaitasunaren* bizitza. Ez du izan zuzendari edo zuzendaritza iraunkor bat, eta horrek eragin handia izan du. Egoera ekonomiko ahulak egitura minimo bat eratzea eragotzi du. Urte asko eman ditu, azken aldian batez ere, nahi eta ezinaren artean, zentsuraren erruz: gizarte eskakizunei erantzun nahi baina bitarteko legalik ez.

Arrazoi horientatik eta beste hainbatengatik, kontua da dozenatik gora zuzendari edo arduradun legal eta erreal izan dituela, zuzendaritza desberdin ugari eta elkarrekin lotura gabeak (ez linguistiko, ez ideologiko), egoitza sozialak, bulegoak eta inprimalekuak ugari izan dituela, sarri aldatu dituela formatuak eta diseinuak, boikot eta kanpainen artean lankideak eta harpidetzak ere errotik aldatu izan zaizkiola, lerro informatibo eta editorialean ere unean uneko aldaketak izan dituela, maiztasuna ere aldatu duela.

Lau unada edo aro

1975ean, hiruhungarren zenbakia ospatzeko, ordura arteko bizialdiari errepaso bat egin zion Zuzendaritzak, errepaso zehatza. Hiru unadatan banatu zuen orduan historia. Unada bakoitzaren baitan epeak ere bereizi zituen. Historia kontakizun hori, zehatza izateaz gainera, fidagarria da seguru, Imanol Berriatuaren begiradapean egina izan zelako.

Orduko hiru unada haiei laugarren bat erantsi behar diegu orain: harrez geroko historia, 1982 bitartekoa, alegia.

Unada horiek iraupen desberdina dute, 15 urtekoa luzeenak eta hiru urte eta erdikoa txikienak. Urteen banaketa hori *Anaitasunaren* beraren barneko gorabeherak esplikatzen dute, hurrengo lerrootan ikusiko dugunez.

LEHEN UNADA: 1953-1968

15 urteko unada hau *Anaitasuna* sortzearekin hasten da, 1953ko ekainean, eta 1968ko urriaren 30ean amaitzen da, aldizkaria ez aurrera ez atzera gelditzen denean. *De facto*, ia urtebeteko geldialdia izango du, hurrengo zenbakia 1969ko irailaren 15ekoa baita.

Sorrera

Imanol Berriatuak sortu zuen *Anaitasuna* 1953an, Bizkaiko Forun, fraidekien Ikastetxeko errektore zelarik. Ekainean agertu zen lehen zenbakia. Lau orrialdeko eliz orritxo da, Bizkaiko euskaraz.

Sasoi hartan ez zegoen euskarazko aldizkaririk Bizkaian. Frantziskotarren esku Gipuzkoak bazuen berea, eta Imanolek pentsatu zuen gauza bera egin zitekeela Bizkaian. Argitalpen baimena zaila edo ezina zen, ordea. Zer egin? Gipuzkoakoaren eranskin bezala argitaratu. Horrela ageri da, 1967 arte, bere beregaintasuna lortu zuen arte. Honela agertzen da: "Suplemento a la Hoja ANAITASUNA de Guipúzcoa". Gipuzkoako Anaitasuna hori Hirugarren Ordena frantziskotarraren aldizkaritxo da zen.

Edukietan, baina, bi Anaitasunek ez zuten zerikusirik, independenteak ziren guztiz, lotura formalak aparte.

Aurreneko editorialaren arabera, Imanol Berriatuak garai hari zegokion "prentsa katolikoa" egin nahi zuen. Prentsaren garrantzi eta indarrak jabeturik, bere bi "alienazioen" alde jarri nahi izan zuen *Anaitasuna*: erlijioa eta euskara.

Lehen zenbakian bertan "Euskaldun irakurle"ari zuzentzen zaio Imanol, eta ezin garbiago eta modernoago azaltzen ditu bertan bai edukia bai hizkuntza mota.

Gaiak bizitza errealekoak izango dira, biziak:

gauza asko esan gura deutsut: baserrikoak, kalekoak, frabrikakoak, unibersidadekoak, futbolekoak, ziñeskoak, ezkontzakoak, gaztarozkoak.

Eta euskara? Batak bestea dakar, gai biziak euskara bizia:

Orrexegaitik, ogeigarren gizaldiko gauzak nire agotik entzun gura dozuz. Pozarren egingo deutsut. Baina orretarako, erdera usaiñeko berba naikoa erabili bear, zuk zeuk kaleko berbetan esaten dozuzanak. Zergatik ez?

Beraz, gai modernoak eta euskara modernoa planteatzen ditu Imanolek. Euskara modernoa: euskara bizia versus bitxia, egokia versus garbia. *Anaitasunaren* marka bizialdi osoan. Hirugarren urtean eredu ingeles bezala bataiatuko du:

«ANAITASUNA»k aspalditik artu dau bere bidea. Euskera errezean idatzi gura dogu [...]. Bada-
dakigu gaurko euskerea erbesteko berbaz beterik dagoana. [...] Jakin daiela Eibar eta
Bermeo'ko euskaldunak euren izkuntzea ona dala, euren pentsamentu guztiak —ogeigarren
gizaldiko gizon modernuaren pentsamentuak— EUSKERAZ agertu leikeezalako, naizta euren
berbetea erbesteko itzez josita egon. Bardin egiten dabe ingelesak, euren izkuntzako
berbarik geienak kanpotik artuak izan arren. Eta gaurko egunean ingelesa da munduko
izkuntzarik indartsuena, ingelestasunaren izpi batere galdu barik.

Guk geuk, «ANAITASUNA»n eskribietan dogunok, ingelesen exempluari jarraitu gura
deutsagu. Bide ona artu dogula uste dogu. Bide zabala, guztiontzakoa.

Lau aldi

Lau aldi bereiz daiteke lehen unadaren barruan:

1) Lehen bi urteetan Imanol Berriatuaren esku dago guztiz (1953-06 / 1955-06).

2) Hurrengo hogeit hamar hilabeteetan (1955-07/08 / 1957-03/04) nahiz eta Imanol Berriatua agertzen den zuzendari, egiatzko zuzendaria Alfontso Irigoien da.

Imanol jada Bermeon da, komentu-bizitza egiten, eta *Anaitasunaren* egoitza orain Bilboko Erribera kalea da, hain zuzen ere Euskaltzaindiko egoitza, bertan lan egiten baitu Alfontso. Gaien aldetik sekularitu egiten da aldizkaria, eta gazte jendea hasten da bertan idazten, horien artean Gabriel Aresti.

3) Hirugarren kokalekua Bizkaitik kanpo dago hurrengo 8 urte eta erdian, hain zuzen ere 1957ko ekainetik 1966ko abendura bitartean.

Dirudenez, aldizkariaren jabeek ez zuten gustuko aldizkariak hartu berria zuzen norabidea eta eskuratu egin nahi izan zuten. Eta zeinen eskuetan utziko eta Arantzazuko ikasle gazteen eskuetan utzi zuten. Esan izan da *Jakinen* eskuetan utzi zutela, baina ez da horrela: Bizkaiko ikasle taldearen kargura gelditu zen *Anaitasuna*. Arduradunen artean agertzen dira, hurrenkera honetan: Antonio Zubizarreta nabarniztarra, Kepa San Pedro bermeotarra, Juan Arriola markinarra, Joxe Manuel Uriagereka bermeotarra, Joan Mari Torrealdei forutarra.

Imanol Berriatua ez dago zuzendaritzan, baina bai aldizkarian, kazetari gisa. Sona handikoak izan ziren Dakar aldetik bidaltzen zituen kronikak. 1957tik 1965era Itsas Apostolutzan egin ohi zuen Afrikako kanpaina Bermeoko arrantzaleekin. Eta handik bidaltzen zituen kronikak. Biziak ziren kronikak, eta biziak baita ere haiekiko erreakzioak: batzuen iritziz Imanol lehen euskal kazetaria zen, Jose Artetxerentzat adibidez; garbizaleentzat, aldiz, euskararen etsaia zen Imanol bere euskara mordoiloagatik.

4) Laugarren aldia kokaleku berrian hasten da, Bermeon (1967-01-15), eta Bilbon amaitzen (1968-10-30).

Arantzazuko ikasleen zuzendaritza kolektibotik Juan Azurmendi fraide gaztearen eskuetara pasatzen da orain, Bermeoko komentura. Haren eskuetara eta Gotzon Garitaonandia Mañuko apaizarenetara. Kanpora begira Gotzon zen ezaguna, langilea eta eragilea izateaz gainera ezaguna zelako.

Anaitasunari berritua eman behar zitzaion. Bi mila harpidedun zituen eta kanpaina egin behar zen gehiago lortzeko. Gaien aldetik ere gaurkotu eta bizitu egin behar zen.

Eta euskara aldetik? Hemen sortzen dira istiluak, Gotzonen jirakoak batasunaren aurkakoak baitira. Kontu egin batasunaren gaia pil-pilean zegoela 1968ko Arantzazuko bilera aurretik ere: 1964ko Baionako Batzarraz geroztik dator 1968ko ekainekoa Ermuan, eta gazte jendea osoki dago batasunaren alde. Imanol Alemanian dago sasoi hartan eta Juan Azurmendiri idazten dio garbizaleak *Anaitasunatik* kanpo uzten saiatu behar zela. Imanol bera Bermeora itzultzen denean sortzen da aukera, Bilboko Edili ingurutik zulo ekonomikoa konpontzeko eskaintza jaso baitzuten. Horretaz fío, 1967ko abenduan Juan Azurmendi eta Imanol Berriatua Bilboko komentura pasatzen dira bizitzera, eta biek hartzen dute *Anaitasunaren* ardura osoa. Behin Bilbon, susmo, presio eta ele ederren eraginez, hasierako babesa utzi eta Torre kaleko egoitzara aldatu zen aldizkariaren egoitza, 1968ko martxoan. Jada bere eskuetan du Imanolek aldizkariaren kontrol linguistiko osoa. Artikulu guztiak Bizkaiko euskaraz agertzen dira, eta aldi berean euskara batuaren aldeko eta defendatzaile dira Zuzendaritza eta idazle gehienak. Ermuko Batzarrean orrialde bat euskara batuan argitaratuko duela hitz ematen du Zuzendaritzak.

Euskara batuaren aldeko jokabide hori ez zen Torre kalera aldizkaria eraman zutenen aldekoa, eta boikota egin zioten. Euskara batuaren aurkako idazleek idazteari utzi zioten, abonamendu berririk ez zen lortzen, Bilbo Zaharreko merkatarien iragarkiak eskatu ziren... aldizkariaren zorrak gero eta handiagoak.

Imanol Berriatua eta Juan Azurmendi ez ziren beraiek bakarrik aurrera egiteko gauza. Erabaki zuten indar betean zeuden Bizkaiko apaiz gazteen eskuetan uztea aldizkaria. Eta horiek Angel Zelaieta aukeratu zuten zuzendari. Baina zuzendaria zein lantalde osoa Derioko seminarioan protesta egonaldi luze batean bildu ziren, eta aldizkaria geroko gerotan gelditu zen. Berriatuak eta Azurmendik bertan behera utzi behar izan zuten aldizkariaren irteera. Urte betean aldizkaria ez zen kaleratu.

Eta zorrak? Zorrak ez dira horren erraz bertan behera uzten, ordea. Bilboko taldeko gizon batek bakarrik kitatu zituen aldizkaria Bilbon zegoen bitartean egin ziren zorrak, Sabin Zubirik, aldizkariaren lehen zenbakia ateratzen lagundu zuen berak. Bermeon egindako zorrak ere kitatu behar ziren, ordea. Horiek ordaindu ahal izateko, Juan Azurmendi, herria eta lana utzita, Alemaniara joan zen, apaiz langile bezala.

BIGARREN UNADA: 1969-1973

Bigarren unada honek 41 hilabete edo hiru urte eta bost hilabete irauten du, 1969ko irailaren 15etik 1973ko otsailaren 28ra.

1972ko urrian dimisioa aurkeztu zuen arte izenez Angel Zelaieta da zuzendaria, baina 1971ko abuztuaren 30etik aurrera egiazko zuzendaria Josu Torre da. Zelaietaren dimisioaren ostean legezko zuzendaria Imanol Berriatua da berriz.

Aipaturiko zuzendarietz gain Idazle Kontseilukideak ziren: Imanol Berriatua, Xabier Gereño, Jose Luis Lizundia, Joseba Arrieta, Xabier Kintana.

Bistan da, orain lortzen du *Anaitasunak* aurreko 15 urteetan eduki ez duen distira eta izena. Honela baloratzen da garrantzi hori 1975eko aldizkarian:

1969.eko irailetik 1973.eko martxorarteko hau, agian, ANAITASUNAREN arorik aberatsenetako eta garrantzizkoenetako bat da. Zalantzarik gabe, ANAITASUNAREN eta Euskal Herri osoaren memento inportante batetan gaude. Urte horietan, dena da hauzigai: ezkerria, euskaltzaletasuna, hezkuntza, elizartasuna, dena. Urte horietantxe egiten du ANAITASUNAREN kazetagitza ere leku bat Euskal Herriko problematikan. ANAITASUNAREN kazeta-modua bizia da, arraia, biperduna eta burrukazalea.

Anaitasunaren marka bezala geldituko diren bi ezaugarri urte hauetan indartzen dira: euskara batuaren aldeko jarrera eta ezkertiar joera.

Euskara batuaren erreferente

Anaitasuna Bizkaiko aldizkaria da, bizkaierazkoa, jatorrizko borondatez. Eta horri eusten dio urte hauetan ere, batasunzale sutsua izanik ere. Bizkaiera batua da euskara batua iristeko *Anaitasunaren* bidea. Bide praktikoa, arauz arau garatzen dena.

Iada 1968an, Euskaltzaindiaren Arantzazuko bileraren atarian, honela idatzi zuen lehen planan:

ANAITASUNA, bete betean dago batasunaren alde. Ermuko batzarrean esan genduan lez, prest gagoz, alik lasterren euskera batuari orrialde bat eskinteko.

Alandagutzitze, aldizkari onetan geienbat erabiliko dogun euskerea, oraiñartelez, oostealdekoa izango da: bizkaiera deituten jakona.

Sendotu Bizkaiko euskalkia: orixe da gure asmoa. Oitu daitezala bizkaitarrak, euskeraz irakurten. Bizkaieraz leiduten, euskera ori eurentzako errezena da eta.

Handik urtebetera, Euskaltzaindiaren agiria dela-eta beste hau idazten du, idazkera honetan:

ANAITASUNA-k behintzat, Bizkaiko aldizkaria izanarren, Bizkai aldeko batasuna egin dura dau, Euskalerriko batasunari begira, astiro astiro, euskereak iraungo badau, guztiok beteko dogun euskera batua lortu daigun. Behin emondako berbea jaterik nahi ez dogulako, eta Euskalerraren geroak arduratzen gaitualako. Horrexegaitik ipini doguz, "ANAITASUNA aldizkarirako bizkaierazko batasuna" egiteko oinarriak.

Azkenez, esan behar dogu, guk be, Arantzazun Euskaltzaindiak ontzat artutako normak geure egin nahi doguzala, bertako askoren exenplo txarra gora-behera.

1970eko abuztuan "Bizkaiera idatziaren batasuna ANAITASUNA aldizkarirako (1970)" ematen du argitara Imanol Berriatuak, eta honela dio hasieran:

Orain urte bete, erregela batzuk argitaratu genduzan, aldizkari honetan erabiltzen dan bizkaierari batasuna emateko. Orain bigarren pauso bat eman gura dogu, geldiro geldiro euskera baturantz joan gaitezen.

Hasieratik hala diseinatu ala ez, esango genuke *Anaitasunak* hiru etapa planteatu dituela: bat, bizkaiera batua; bigarren, ereduzko euskara batua; eta hirugarren, euskara batu betea-edo.

Lehen etapa edo pauso horri jarraituz bigarren urratsa dator, noski. 1971ko azaroko bi zenbakitan azaltzen dira biak "bigarren pausoari jarraituz" izenpean eta Zuzendaritzak sinatuta. Baina oraingoan kontua ez da bizkaiera arautzea, euskara batua baizik:

ANAITASUNA aldizkarian agertzen den euskara batua ahalik eta euskaldunik gehienek errazki irakur dezaten, zenbait norma argitaratzen ditugu, idazleek kontuan har ditzaten.

Anaitasunaren jarrera hau minimalista iruditzen zaie batzuei, eta kritikatu egiten dute aldizkaria. *Zeruko Argiatik* Eli delako batek esate baterako. Zuzendaritzak aitortzen du "astiroxeago" joatea erabaki duela, beharbada "lasterregi" ibilia delako. Gainera, *Anaitasunak* orain arte bezala "ereduzko" euskara batua egin nahi du, muturreraino joan gabe. Etapaz etapa, pausoz pauso, apurka-apurka joan nahi du, eta gerorako agintzen du euskara batu osoa: "Bigarren etapa hau bete ondoren, hirugarren pauso bat emango dugu, euskara batuari are lotuago jarraiturik".

Egia ala gezurra, harrokeriarik batere gabe baina euskara batuaren alde beste inork baino ahalegin gehiago egin duela uste du *Anaitasunak*, eta bere burua aitzindari eta gidaritzat jotzen du 1971ko abenduan.

Ezkertiartasuna

1971ko ekainean zalantzak bide daude gizartean *Anaitasunaren* linea ideologikoari buruz: "ANAITASUNAK urte bi daramatza zuzendaritza berri honen gidaritzapean; eta arrazoi handiz esaten zaiku, jendeak gure linea ideologikoa jakin nahi duela".

Anaitasunak sinatzen duen erantzunean bi ezaugarri ageri dira: euskalduna eta ezkertiar joerakoa da *Anaitasuna*:

[...], linea bat aipatzea baino, *joera* bat esatea egokiago ikusten dugu. Eta joera hori seinalatzen hasiz gero, lehendabizikoz *euskalduna* dela esango genuke. Euskaldunak gara, Euskal Herri eta euskal jendearen interesen alde dihardugulako, euskaraz ari garelako, euskal irakurleak ditugulako... [...]

Eta euskaldunak izanik [...] ezkertiar joerakoak garela esan behar dugu. Ezkertiarrek, gaur egun hemen eta Legeen landa barruan, ahal dugun neurrian dihardugunak. Euskal Herriaren sozializatzeko eta demokratizatzeko bidean, euskaldun bezala, lanean dihardutenen adiskide, laguntzaile eta berriemaile gertatzea nahi genuke.

Arrazoiarekin ala arrazoirik gabe, jende asko haserretu zitzaion *Anaitasunari* urte horietan, arrazoi ideologiko-politikoak tarteko. Giro txarra. "ANAITASUNAREN jokabideak ez dira beharbada beti hoberenak", aitortzen du Idazle Kontseiluak urte haietako giroa azalduz. Orekarik eza salatu ohi zitzaion *Anaitasunari*, eta boikota agindu zuten batzuek, hala nola, ELAko batzuek, edo Iparraldeko aterpean zeuden kultur gile batzuek. Idazteari ere uko egin zioten. Eta horrek berak desoreka handiagotu egin zuen.

Aldizkariaren baitan ere ez zen tirabirarik falta: zuzendaria zegoen alde batean, Idazkolaria eta Banakolarekin, eta beste aldean Idazle Kontseilua. Begi bistakoa zen dibortzioa. Abagune honetan agertzen da "Anaitasuna-ren manifestua", 1972ko otsailaren 7an. Aurrerantzean horrek markatu behar zuen bidea:

bi xede zituen Manifestu honek: batetik, ANAITASUNAREN linea finkatzea, eta bestetik, deklarapen horren arabera artikuluak eta joerak epaitzea.

Sei puntu ditu Manifestuak, eta hirugarrena litzateke beroena edo eztabaidari zuzen heltzen diona. Hona laburbilduta:

3. Sozial arazoei eta politikari dagokienez, ANAITASUNAK jarrera aurrerazale bat izaten jarraiki nahi du [...]. Ordea, gaurko Euskal Herrian politikan eta joera sozialistetan erabateko batasunik ez dagoenez gero, ez dirudi zuzen, ANAITASUNA inoren jokabidearekin lotuta egotea; bai, ostera, bere orrialdeak elkarren artean joera hurbil baina ezberdina duten guztiei eskaintzea. [...]. ANAITASUNAK, arlo honetan, euskal taldeen ideologiaren biltzaile eta hurbiltzaile izan gura luke, ez urruntzaile.

Beltza da egoera 1973an: zuzendari gabe, boikota giroan, aldizkariaren baitan etena, eta batez ere ekonomiazko egoera geroz eta larriagoa. Honela aitortzen du Idazle Kontseiluak:

Joseba Intxaustiri Redakziotik dei egin zitzaionean [...], ANAITASUNAK ekonomiazko zulo ikaragarria zuen.

HIRUGARREN UNADA: 1973-1978

Bi aldi bereiz daitezke unada honen barruan: Joseba Intxaustik 1973ko martxotik 1974ko hazilera arte betetzen du zuzendari kargua eta haren segidan Joan Mari Torrealдай sartzan da, legez 1978 arte eta gertatzez, oker ez banago, 1976 uda arte. Egiatzko zuzendari lanetan, Joan Mari Torrealдайren ausentzia Antton Iñurritegik bete du.

Jakinen esku hartzea

Erredakzioko lagunek Jakin taldera jo zuten laguntza eske 1973ko otsailean, Joseba Intxaustirengana zehazki. Bi arazo nagusi zituen hamabostekariak: zuzendari berriaren izendapena eta ekonomiazko itomena.

Ez zen goxokia Jakindarrentzat. Jakin taldea, aldizkaria itxi ondoren, sakabanatua zegoen: Parisen, Alemanian, Erroman. Joseba bera gelditzen zen Euskal Herrian. Kide guztiak kontsultatu ondoren, baiezkoa erabaki zen, *Anaitasuna* hartzea, baina ez Jakineko proiektu gisa: bere bidea autonomiaz egin zezan laguntza eskainiko zion Jakinek.

Zuzendari izateko baiezko baldintzatua eman zuen Joseba Intxaustik: idazle kontseilukoek isilpeko bozketaz onartu beharko zuten izendapena eta ekonomi berrikuntzarako plangintza. Ahobatezko onarpena izan zuen. Eta lanean hasi zen ordura arteko erredakzio talde berarekin. Lehen erabakia *Anaitasuna* arintzea izan zen: artikulu astunak gutxi eta berri gehiago sartu, horretarako diseinu berri bat eginez.

Zorrari aurre egiteko abertzale munduko kolore guztietako taldea osatu zuen, eta itomenetik ateratzea lortu zuen. Taldekide ziren, besteren artean: Jose Mari Makua, Bizkaiko Ahalduen Nagusi izango zena; Xabier Agirre, Ekonomia Sailburua izango zena; Santi Brouard, ultraeskuindarrek hil zuten medikua; Jose Anjel Iribar futbolaria; Xabier Gereño eta Joseba Gereño anaiak; eta gogoratzen ez ditugun beste batzuk.

Newsmagazine eredua

1976 urtea oso garrantzitsua izan da aldizkariaren normalizazio prozesuan: *Argiarekin* batera eta *Goiz Argiren* laguntzarekin, euskal kazetaritzaren urtea izendatzen du 1976. Aldarrikapen horrek motibo bat baino gehiago du. Batetik, normalizazioa du helburu; eta bestetik, inguruko proiektu elebidunen aurrean haserre puntua.

Normalizazioak zentsuraren desagerpena lekarke: aldizkari bat sortzeko ez da gehiago behar elizaren babesa eta gainera gai politikoak ere "lasai" erabil daitezke. Modernitateak Espainian eta Frantzian modan dagoen newsmagazine formatua eskatzen du. "The medium is the message", eredu modernoak modernotasuna ematen dio euskarari, kazetaritzari... horra zer lortu nahi den.

Etxean sortu zaizkio lehiakideak edo etsaiak, ordea. Modaren puntan daude ustez elebidun diren erdal aldizkariak: *Punto y Hora*, *Berriak*, *Garaia* eta beste. Hedabide horiek euskarazkoentzat xurgatzaile handiak dira: idazleak kentzen dizkiete, publizitatea, merkatua, ospea.

Iker-i eskualdaketa

1980an utzi zuten kaputxinoek *Zeruko Argia* talde baten eskuetan. Erabaki bera askoz lehenago hartu zuten frantziskotarrek, 1976an. Baina ez zen burutu jabego aldaketa.

1976ko uda aurretik, Joan Mari Torrealдай, *Anaitasunaren* legezko zuzendaritza utzi gabe, *Jakinera* itzultzen da 1969an debekaturiko aldizkaria martxan jartzera. 1977ko martxoan *Anaitasunak* egiten dion elkarrizketan, honela azaltzen du berak garaiko ikuspegia:

[...] JAKINetik etorri ginenok ANAITASUNari bere bidea eman geniola uste genian: lehenengo Joseba Intxaustik eta gero nik. Irakurleak hori badiakik ondo, 1976ko urtearekin, erabateko berrikuntza eman geniola aldizkariari: IKER taldeak zieramaan alderdi teknikoa, kazetari bat jarri zuan Zuzendaritzan (Xabier Artzelus). Eta beste. Guri berez gehiago zegozkigun kultur lanetara erretiratzea zela bidezkoena pentsatu genian JAKINen. JAKIN aldizkaria sortzea ere erabakia baitzegoen. Eta bistan denez, ANAITASUNAK bere bidea autonomia osoarekin egin ziezakean. ANAITASUNA kazetal entrepresa bezala errentagarria zuan.

Iker taldearekin ez zegoen akordio teknikoa bakarrik, jabeago aldaketarena ere hitzartua zegoen. Bai Iker taldeak bai jabeak, Hirugarren Ordenakoak alegia, bat zetozen baldintzetan: 6 milioi pezetaren truke (oker ez bagaude) Iker taldea jabetuko zen aldizkariatz. Akordio horren baitan eman ziren lehen urrats teknikoak: Iker-en bulegoetan kokatzen zen aldizkaria eta bertakoek egin ohi zuten lan teknikoa. Baina bi aldeek adosturiko hitzarmen hori ez zen sinatu. Zer gertatu zen? Iker taldeko nagusiek proiektu kultural eta pedagogikoez gainera politikoak ere bazituztela, eta azken horien uholdean ito zirela haiek, ohikoa bezain tamalgarria denez politika eta kultura nahasten direnean. Burutu gabe gelditu zen saioa izan zen hura, garaiz eta egoki bideratua bazen ere.

Lorpenak lorpen, *Jakinek* bete zuen bere hitza.

LAUGARREN UNADA: 1978-1982

46 hilabeteko ibilaldi hau 1978ko ekainarekin hasten da eta 1982ko apirilean amaitzen, hiru urte eta hamar hilabete guztira.

Idatzizko dokumentu gutxi dago, eta zaila gertatzen zaigu zehaztea. Zuzendariaren ordezkariak Koordinaketa agertzen da, eta ondoren Erredakzioa eta Erredakzio Kontseilua. Joxe Ramon Etxebarria agertzen da koordinatzaile gisa. Etxebarria da, hain zuzen, behialako lantaldetik gelditzen den bakarra, bestalde. Aldizkaria langileen esku dago. Jabeak, izan, Hirugarren Ordenakoak dira, betikoak. Baina oraingo arduradunek uste dute, uste dutenez, Iker taldea dela/zela jabea.

Anaitasuna umezurtz

1980ko apirilean 400. zenbakia atera zuen *Anaitasunak*. Hirurehugarrenarekin bezala, bidearen eta egoeraren errebasoa egiteko baliatzen du abagunea zuzendaritzak. Bi urte lehenago zein egoeratan hartu zuten aldizkaria gogoratzen du Tomas Trifol Erredakzioko kideak:

ANAITASUNA aspaldidanik, nik ezagutzen dudanetik hona behintzat, halako tapagailutzat hartua izan du zenbait politikarik. Ba al dakizu zenbat jende egoten zen ANAITASUNAKo nomina barruan orain hiruzpalau urte? 11 pertsona guttienez bai. Denak EHAS-ekoak omen, EHAS-eko liberatuak eta ANAITASUNAz arduratzen ez zirenak, hain zuzen. Eta noski, beti bezala, tonto bat edo biren lepora ardura guztia. Lehengoz Iñurritegi-ri, Kintana-ri, Alvarez-i. Guk ANAITASUNA atzeman genuenean, lehengo arduradun teorikoak 7 milioi zorra zeukala esan zigun. Hor dauzkagu paperak gordeta. Zergatik utzi zen ANAITASUNA horrela? Nork eman zion?, zertarako? Erantzunik gabeko galderak. Beno hariari, garai horretan 6.000 eta piku harpidetzatik erdiak ere ez zuen pagatzen hain abandonu itzelean egon zen etxe hau.

Jose Ramon Etxebarriaren koordinaziopean atondu den lantalde batek lortu du "mirakuloski bizi" den aldizkari hau bizirik mantentzea, "subsistentziako ekonomian" bada ere. 1980ko zenbaki berezian honela dio Jose Ramon Etxebarriak:

Gaur egun lauzpabost pertsonak egiten dute lan ANAITASUNAn langile bezala; eta gero nola esker daitezkeen ez dakidan idazle "zoro" batzu daude. Eta guztion lanez, nola edo hala bizirik diraungu. Dena den, egiturazko hutsune handiak ditugu oraindik.

[...]

Oso egitura sinplea dugu. Jonek [Jon Idigoras] eta Asenek administrazio lana daramate. [...]. Tomasek [Tomas Trifol] eta Millanek erredakzioko lan nagusia daramate. [...]. Maketaziorako Ramon Zumalabek laguntzen digu, Ttua taldeak azalak eta zenbait irudi egiten dituelarik. Idazleak frankotiradore direla esango nuke. [...]. Bukatzeko, ni neu nago koordinatzaile bezala edo.

Bi urte eskasera aldizkariko plantila ia guztiz aldatzen da, eta ez jendea bakarrik. 1982ko lehen zenbakian Zuzendaritzak argitara ematen duen ohar batean lankide berriak agertzen dira, eta aldizkariaren joera aldaketa ere bai:

Orain dela urte betetik hona, gutxi gora behera, ANAITASUNAREN arduradunak aldatzen joan dira, eta gaurko taldean orduko bakar batzu baino ez dira geratzen. Talde berriztatu honek, 1982. urteko lehen ale honetan ohar batzu nahi dizuete egin harpidedun eta irakurleoi:

1- Aldizkariaren edukia arindu, alaitu eta zabaldu nahi izango genuke. Arindu artikuluen aldetik, politikari garrantzi gehiegirik eman gabe eta artikulua teorizante luzeak gutxituz;

alaitu sentidurik zabalenean, gaurregun esaten den bezala "desdramatizatu", bizi dugun egoera tristea bada ere guk tristeago ez ipintzen ahaleginduz. Zabala gaien eta idazleen aldetik.

Lerro editoriala auzitan

1979ko lehen zenbakian *Anaitasunak* bere "hastapen editorialak" agertzen ditu bost puntutan. Hona lehen hirurak:

- a) Informazio edo formazio objetiboaren eragintza eta mantentzea, euskaraz soilki emana, Euskal Herriaren zerbitzupean, oro har, eta batik bat, herri mailen edo herri xehearen zerbitzupean.
- b) Euskal Herriaren berreuskalduntze, birbatze eta subiranotasunaren alde, ikuspegi berriemaile hutsari begira, lan egitea, inongo eta inoren, ezein talde edo alderdi politikoren taktika, estrategia edo helburupean egon gabe, eta aldizkari bati dagozkion neurri eta muga barnean.
- c) Klase burrukaren aurrerabide eta bilakaera potentziaztea, klase burrukaren eremu autonomoaren ikuspegiari atxikirik.

Lerro editorial horrek barik, lerro informatiboak ekarri zuen eztanda. Sei hilabeteren barruan, 1979ko abendutik 1980ko maiatzera, kultur gizon kualifikatu zenbaiten iritzi haserretuak agertu ziren aldizkarian. Eta bitxia bada ere, laurok salatzen dute Gernikako Estatutua dela eta *Anaitasunak* harturiko jarrera.

Joseba Agirreazkuenagarentzat Estatutuaren inguruan ikusi da aldizkaria zuzentzen dutenen iritzi politikoen zerbitzuko tresna bihurtu dela *Anaitasuna*.

Henrike Knörrek salatzen du *Anaitasunak* Estatutuaren kontra hartu duen jarrera ezin nabarmenagoa dela, eta bide batez dio zeharo makurtuta dagoela aldizkaria pentsamolde jakin batera, filtro eta alderdikieriaz jokatzeko duela, eta underground jitea hartzen ari dela.

Xabier Leterentzat aldizkaria guztiz sektarioa da, eta Estatutuaren kasuan bezala, diferente pentsatzen dutenentzat ez dago iraina, maiseaketa, mespretxua besterik *Anaitasunako* orrialdeetan.

Jose Luis Lizundiak aldizkariak egindako inkestari erantzunez dio lehen baino sektarioago eta integristago dela, Gernikako Estatutuaren kasuan ikusi den bezala.

Politikoki desberdin direnek irain, lorrin, ezten eta azkon ugari jasotzen omen dute aldizkarian.

Iritziak iritzi, azpimarratzekoa da *Anaitasunak* artikuluok gordin-gordin argitara eman izana. Eta zuzendaritzako kideek aurpegi eman izana erantzun bidez.

Are gehiago. Kritika eta salakuntzen ekaitzaren erdi-erdian Felipe Aldaiturriaga kazetariak zuzendaritza elkarrizketatzen du 400. zenbakirako. Galderak zuzen eta gordinak dira, eta erantzunak zuzenak, garbiak. Tomas Trifol eta Jose Ramon Etxebarria dira erantzuten.

"Itxi beharrean topatzen gara"

Azken urteetan nahikoa arrastaka ibili ostean, 1982ko abuztuaren 1 data daraman *Argia* aldizkarian *Anaitasunaren* izenean artikulu bat agertzen da titulu honekintxe: "Anaitasuna: itxi beharrean topatzen gara".

Artikulu horren azken mezuak hau dio:

Euskal prentsak eta kazetari euskaldunok desafio gogorra dugu aurrean. Gure eginkizuna bete ezinik aurkitzen gara eta ez gogo faltaz gaudelako edo lanik egiten ez dugulako. Batez ere, ekonomikoki itotzen ari gara, itotzen gaituzte, eta flotagailua eman dizaguketenek, eman ordez, gu urperatzen saiatzen ari dira. Ulertzaile onari, hitz gutxi.

Aurreko hilabeteen, uztailean, artikulu pare bat atera zituen *Egin* egunkariak *Anaitasunako* langileek sinatuta, aldizkariaren "lotaldia" tituluarekin lehena, eta "kontuak ahalik eta argien" izenpean bigarrena.

Hiru lanok tesi bera dute: arrazoi ekonomikoak tarteko aldizkariak ezin du jarraitu. *Anaitasunaren* kasuan ahulezia ekonomikoak iturri diferenteak ditu, batzuk orokorrak eta bere-bereak beste batzuk.

Francoren heriotzaren testuinguru hartan hiruzpalau aldizkari "elebidun" sortzen dira (*Punto y Hora, Garaia, Berriak...*) eta horien eragina pairatzen dute *Anaitasunak* eta beste euskal aldizkariak, publizitatean bezala harpidedunetan. Horri nolabait aurre egiteko 1980an euskal prentsaren aldeko kanpaina egiten dute euskal aldizkariak, denek batean. *Anaitasunak* 700.000 pezetako oxigenoa jasotzen du.

Euskal aldizkariak frankismo garaian enpresen aldetik diru laguntzak jaso ohi zituzten, batez ere kutxa eta bankuetatik, publizitate bidez eta bestela. Laguntza mota hori ere desagertu egiten da urte hauetan, estatutuaren arabera erakundeak sortzean enpresak erretiratu egiten baitira, aurrerantzean laguntza mota hori erakundeei dagokiela eta. Erakundeek, ordea, oraindik gauzatu gabe daukate aldizkarietako laguntza politika. Eusko Jaurlaritzatik 206.611 pezeta jaso zituen *Anaitasunak*.

Erakundeen diru laguntzekin oso kritiko da *Anaitasuna*, guztiz urriak direlako, batetik, eta *Anaitasuna* negatiboki diskriminatzen dutelako, bestetik. Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Aldundiaz dio: "bi erakunde horiek kontrola ipini dute lehenengo helburutzat eta ez euskara".

Errentagarritasunik ezaren arrazoietan bada beste faktore bat, guztiz barnekoa hau: abonatuaren ordainketa eza. Harpidedunen kopurua jaitsia zegoen, baina ez zen gutxienekoa: orain ere bazen lau milakoa. Kontua da horietatik erdiek ere ez zutela ordaintzen. 1982ko abuztuan diotenez, %60 omen zen ordaindu ez zuten abonatuaren kopurua.

Horrelaxe geratu zen bidean *Anaitasunaren* abentura.

II. GAIEN EKOIZPENA

IDAZLEAK ETA EKOIZPENA

Ekoizpena ikertu aurretik aipa ditzagun egileak, idazle zein kazetari.

1.200 lankideren obra materiala dela *Anaitasuna* pentsa dezake norbaitek. Ez da gezurra baina egia osoa ere ez, lautik bat sinatu gabe baitago. Sinadura daramatenak 4.784 dira:

<i>Idazlea</i>	<i>Kopurua</i>
Xabier Kintana	310
Jose Ramon Etxebarria	249
Xabier Gereño	229
Imanol Berriatua	204
Joan Mari Torrealdei	154
Angel Zelaieta	103
Joxe Azurmendi	83
Joseba Intxausti	80
Paulo Agirrebaltzategi	75
Jose Luis Lizundia	70

Ekoizpen materiala

Izenez ezagutzen ditugun 1.200 lankide horien eta anonimatuan gelditu diren beste askoren emaitza da hurrengo laukian agertzen dena.

Hamarna urtez aurkezten dugu ekoizpena balio desberdinetan. Zutabe bakoitzaren balio absolutuak bukaeran ematen ditugu, baina aldi bakoitzeko ehunekoetan hamarkada bakoitzaren indarra hobeki azaltzeko.

420 zenbaki atera dira guztira, bai; nahiz eta azkenak 419 zenbakia duen. *Anaitasunaren* zenbakien historiak ere badu berea: 17 zenbaki bikoitz atera dira, eta

horrezaz gainera, 4 zenbaki errepikatuta daude, 3 zenbaki falta dira eta numero espliziturik gabe beste 11 zenbaki daude. Hau ere bada *Anaitasunaren* argazkia.

<i>Hamarkada</i>	<i>Urteak</i>	<i>Zenbakiak</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Karaktereak</i>	<i>Artikuluak</i>
1953-59	7	%16,-	%5,2	%4,2	%7,5
1960-69	10	%26,5	%12,-	%15,2	%18,8
1970-79	10	%51,5	%66,3	%67,6	%64,-
1980-82	3	%6,-	%16,5	%13,-	%9,7
1953-1982	30	420	8.018	27.628.000	6.395

Begien aurrean dago hamarkada bakoitzaren ekarpena. Inolako zalantzarik gabe, alderdi kuantitatiboen aldetik behintzat, 1970eko hamarraldia gailentzen da modu nabarmenean. Historian aipatu ditugun hiru unada desberdinek hartzen dute parte urte horietan.

GAIK DENBORA-TARTEKA


Taula orokorra

<i>Ordena</i>	<i>Gaia</i>	<i>Zenb.</i>	<i>%</i>
1	Politika	942	14,7
2	Hizkuntza	759	11,9
3	Orotarik	727	11,4
4	Erljioa	704	11,-
5	Kultura	639	10,-
6	Albistegiak	594	9,3
7	Literatura. Liburua	483	7,6
8	Ekonomia	341	5,3
9	Hezkuntza. Irakaskuntza	327	5,1
10	Zientzia	219	3,4
11	<i>Anaitasunaz</i>	207	3,2
12	Gizartea	193	3,-
13	Herriak. Eskualdeak. Lurraldeak	101	1,6
14	Komunikabideak	89	1,4
15	Filosofia	70	1,1

Gaiak banaka eta urteka aztertu aurretik, komenigarria da ikuspegi orokor bat edukitzearen alde taula orokorra argazki batean bezala bisualizatzea. Bertan, eta baita hemendik aurrerako azterketa osoan ere, artikuluak zenbatuko dira gaika.

Mugimendua falta zaio argazki horri, ez baitu erakusten urteetan zehar gai bakoitzak izan duen garapena. Horixe da hurrengo grafikoetan zehar ikusiko duguna.

Politika



Bi azpiatal handitan banatzen da sail hau: Euskal Herriko politika eta atzerriko politika. Euskal Herriko aldizkaria izanik, bertokoak du pisu gehien (%55,5); baina ez da arbuizatzea atzerriko politikaz diharduten artikuluen kopurua (%44,5).


Bertoko politikaren tratamenduan eguneroko politikak eta gatazkak hartzen du zati handiena.

Atzerriko politikan, nazio gutxituena ahaztu gabe, nazioarteko gertakari eta gatazken azterketak hartzen du gehien. Bitxia da Frantziari buruz Espainiari buruz baino gehiago idatzi dela politika alorrean.

Taula nagusian ikusi den bezala, gai hauxe da *Anaitasunan* gehien tratatu dena, politika: guztiaren 14,7. Baina ez du beti garrantzi bera izan. Frankismoaren azken urteetan eta handik aurrera lehertzen da benetan euskal politikaren gaia, hirugarren eta laugarren unadetan.

Kontuan izatekoa da beste hau: sail honetan barik filosofian kokatuta daude politikaren alderdi teoriko eta ideologikoak, filosofia edo pentsamendu politikoaren alorrekoak, hain zuzen.


Hizkuntza



Sail honen pisua ere handia da: %11,9. Pisu hori batez ere 70eko hamarkadan nabarmentzen da.

Sailaren barruan alderdi teorikoak eta praktikoak daude, hangoak eta hemengoak, hizkuntzalaritza, soziolinguistika, hizkuntza gutxituak, aldizkarian argitaratzen diren hiztegiak. Baina artikulu gehien-gehienak (%93,8) euskararen jirabiran dabilta: diskriminazioa, elebitasuna, normalizazio prozesua, hizkuntz politika, euskalkiak eta euskara batua, Euskaltzaindia eta horren erabakiak.

Orotarik




Orotarik hau saski-nahaski bat izan ohi da. Hemen ere badu horretatik, baina ez horrenbeste. Badira elkarrekin nekez uztartzen diren gaiak barruan, baina baita ere pisu handiz daude bertan *Anaitasunan* batera marjinalak ez diren kontuak. Sail honetan kokaturik dauden "Umorea", "Denbora-pasak" eta "Komikiak", hiruen artean %77 osatzen dute. Horretaz gainera sukalde errezetak daude, edo aisia.

Bi ataltxo gehiago ere bertan sartu ditugu: huntaz eta hartaz ari diren gogoetak edo hausnarketa pertsonalak; eta anekdotak edo istorioak.

Lehen unadan ere sail honek tratamendu nahikotxo izan du, segurutik aldizkari arin eta irakurterraza lortze aldera, horixe izan baitzen Imanol Berriatua sortzailearen kezkarik behinena.

Anaitasunaren historia osoan sail honen pisua aintzat hartzekoa da: 11,4.

Erljioa




Sail honen pisua aurrekoen bidetik doa, eta altu mantentzen da: %11.

Badira gizartean, eta halaber *Anaitasunan*, denborarekin gora edo behera egin dutenak. Honek sekulako higitzea izan du, gizartean bezala aldizkarian.

Lehen unadan artikulu ugari idatzi dira (idatzi den guztiaren %71,4), garaia ere halakoa zen eta. Eta azkenekoan? %3 besterik ez. Eta orduan bezala orain, *Anaitasuna* frantziskotarrena zen, izan.

Kultura




Kulturak pisu dezente izatea euskal aldizkari informatibo batean, espero daitekeena da: %10. Egiaz eta benetan hemen agertzen dena baino gehiago du, askoz gehiago, albiste eta kronika askoren gaia edo edukia kulturazkoa baita, baina guk aparte kontsideratu ditugu albisteak.

Sail honetan sartu dugunak zerikusia du kulturgintzarekin, kultur ekitaldiekin, arte, musika, antzerki, zinema, jaiekin eta kirolarekin. Eta, baita ere, bertsolaritza, folklorea, etnografia, eta euskalduntasunarekin. Horietatik guztietatik artikulu gehien bildu dituen musika izan da, %24.

Historian zehar balio berdintsuetan mantendu da sail hau.

Albistegiak




Bi azpiatal ditu: albiste eta kronika laburrak, batetik. Eta, bestetik, tokiko informazioa. Herri kronikak. Bietan sistematikoki bildu nahi izan dira *Anaitasunak* urteetan zehar bildu dituen informazioak.

Albiste eta kronika laburretan aldizkariko sail hauek bildu dira: "Or, an, emen"; "Esamesak"; "Naste berraste"; "Euskaldungoa"; "Gure munduko albisteak"; "Neure lantokitik"; "Hementxe denok"; "Tantaka"; "Ohar laburrak"; "Hamabost egun hankaz gora"; "Agiriak". Eduki gehienak kulturaren ingurukoak dira, baina adiera zabalean: kultur ekitaldiak, literatura, politika, euskara, hezkuntza, liburu berriak, hitzaldiak...

Tokiko informazio eta herri kroniketan, "(H)erriz (h)erri" saileko kronika lokalak bildu ditugu.

Hirugarren unadak agerian uzten du Joseba Intxaustik inauguratu zuen joera, artikulua astun eta ideologikoz arindu eta "berri" ugariz aldizkaria hornitzea.

Literatura. Liburua




Bi azpiatal ditu sail honek ere. Lehen, literatura: bertan, literaturaren historia eta kritikez gain, sorkuntza lanak biltzen dira, ipuinak, olerkiak, ipuinak. Azken horiek sailkatzeko orduan, formari lehentasuna eman zaio edukiaren kaltetan.

Liburuaren kritikek eta erreseinek osatzen dute beste azpiatala: edozein gairi buruzko liburuak dira, ez soilki literatur liburuak.

Oreka berdintsua mantentzen du gaiak historian zehar. Urteak aurrera joanaren arabera, liburuaren atala literaturarena baino gehixeago garatzen da.


Ekonomia



Sail honen barruan kokatzen dira ekonomia azterketak eta ekonomia sektoreak (arrantza, nekazaritza, industria), lana, enplegua, sindikalismoa, finantzak eta hirigintza. Gai zabala da, hortaz. Lana-enplegua-sindikalismoa hirukoa da nabarmentzen dena: %38,6. Beste hainbeste artikulua argitaratu dira ekonomia sektoreez.

Sail honen urre garaia hirugarren unadakoa da.


Hezkuntza. Irakaskuntza



Sail hau bitan banatuko bagenu —batetik, alderdi teorikoak (pedagogia, didaktika, metodologia, sistemaren antolakuntza), eta, bestetik, euskara eta irakaskuntzarekin zerikusi zuzena duena (ikastola, unibertsitatea, alfabetatzea, euskalduntzea)—, zein litzateke artikuluen proportzioa? %78 bigarren ikuspegiaren alde, eta %22 lehenengoarentzat.

Eta gai horiek noiz egon dira bizi-bizi gizartean? 70eko hamarkadan *Anaitasunak* erakusten duenez.


Zientzia



Zientzien esparruan kokatu ditugu natur zientziak (fisika, kimika, astronomia, biologia, geologia), giza eta gizarte zientziak (psikologia, soziologia, historia, etnografia, antropologia) eta zientzia eta gizartearekin zerikusia dutenak (zientzia-teknika-gizartea, osasuna, medikuntza, ekologia).

Sailik hornituena hirugarren hori da (%57), eta horren barruan ekologia gailentzen da.

Anaitasunaren inguruan




Bi azpiatal ditu, arras desberdinak.

Bateko: *Anaitasuna* barnetik, hau da, *Anaitasunak* berak edo aldizkariko kide esanguratsuek aldizkariaren izenean irakurle, idazle edo harpidedunei idatziriko oharrak, edo aldizkariari berari buruzko artikuluak.

Eta besteko: *Anaitasunari* zuzenduriko gutunen atala: alegia, irakurle, idazle, edo harpidedunek aldizkarira bidalitako gutun edo idazkiak, gaia edozein dela.


Pisu bera dute batak eta besteak, jaso zein jalgi.

Gizarte arazoak



Sail honetako gaiak ezagututa nahikoa bitxia dirudi lehen unada izatea nagusi. Izan ere, gai hauek kokatu ditugu hemen: emakumea, genero azterketak, gazteak, abortua, pobrezia, gosea, sexualitatea, modak, gizarte ohiturak.


Herriak. Eskualdeak. Lurraldeak



Geografia fisikoari eta giza geografiari dagozkionak bildu ditugu hemen, hots, zonalde bati buruzko deskribapen fisiko, geografiko, demografiko, ekonomiko, politiko, linguistiko, kultural... eta abarretakoak nahas daitezke.

Bigarren unadak landu zituen gehien ikuspegi horiek.


Komunikabideak



Sail honetan sartzen dira komunikazioa, kazetaritza, prentsa idatzia, irrati eta telebista, euskal prentsa eta euskal komunikabideak.

Erdia baino gehiago euskal prentsaren ingurukoa da artikuluetan, batez ere pil-pilean jarri zenean 70eko hamarkadan. Hirugarren eta laugarren unadako arduradunek sentsibilitate berezia landu zuten komunikabideen eta euskararen inguruan.

Filosofia



Filosofia ez da berriaz aldizkari informatibo baten gaia. Politikan koka zitezkeen hainbat lan sartu ditugu hemen, teoriko-abstraktuak direlako, filosofia politikoarekin lotuago daudelako eguneroko politikarekin baino.

Izan ere, filosofoei eta sistema filosofikoei buruzko artikulak badira batzuk, 10 bat, baina gehien-gehienek, pentsamendu politikoa, sozialismoa, komunismoa, marxismoa lantzen dute.

Gai horien urre garaia bigarren unadan ageri da.

Joan Mari Torrealdai
2010-09-15